

Olaberria, Zamudio eta Zierbena dira Euskal AEn BPG handiena duten udalerriak

Arabako hiru eskualdek, berriz, biztanleko BPG balio handienak dituzte : Errioxa, Gorbeia inguruak eta Arabako ibarrak

Euskal AEn, Eustaten datuen arabera, Olaberriako udalerriak, zeina Gipuzkoakoa baita, du biztanleko BPG handiena. Bigarren eta hirugarren Zamudio eta Zierbena daude, Bizkaikoak biak. Araban Legutio da biztanleko BPG handiena duen udalerria, erkidegoan laugarren delarik.

Biztanleko udal BPGk udalerri baten barruko ekoizpen-faktoreek (lantegiak, saltokiak, zerbitzu-enpresak...) sortutako aberastasuna neurtzen du.

Lau udalerri horietako BPG sektoreka nola banatzen den ikusiz, lauotan nabarmena da balio erantsi handiko industria adarren pisua; Zamudioko kasuan Teknologi Parkera lotutako zerbitzu sektorearen sendotasuna dugu baita ere.

1. taula. Biztanleko BPG handiena (eurotan) duten udalerriak eta banaketa sektoreka (%). 2005

BIZTANLEKO BPGa			SEKTOREKA (%)			
LURRALDE EREMUAK	Biztanleko BPGa	INDIZEA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	SERBITZUAK
Euskal AE	27.153	100	1,0	29,8	8,9	60,3
Araba	32.236	119	1,9	37,3	7,7	53,2
Bizkaia	25.738	95	0,7	24,9	10,5	63,9
Gipuzkoa	27.250	100	0,8	33,6	7,1	58,5
1 Olaberria	276.451	1.018	0,2	85,6	0,8	13,4
2 Zamudio	239.124	881	0,1	50,1	5,8	44,0
3 Zierbena	190.428	701	0,4	90,9	2,1	6,7
4 Legutiano	180.216	664	0,8	79,6	1,9	17,7
5 Loiu	159.373	587	0,2	25,3	13,9	60,5
6 Aduna	152.775	563	0,7	57,4	7,2	34,6
7 Izurtza	146.616	540	0,4	68,4	1,8	29,4
8 Ajangiz	122.148	450	1,2	81,5	1,5	15,9
9 Berantevilla	103.232	380	5,5	77,1	6,6	10,7
10 Gizaburuaga	103.175	380	1,7	73,6	4,9	19,7

Iturria: Eustat

Eskualdeka, Araban daude biztanleko BPG handienak dituzten lehenengo hirurak. Aurrena Errioxa dugu, bai ardogintzaren sendotasunagatik, bai biztanle-dentsitate txikiagatik. Errioxako udalerrietan, Laguardia eta Eskuernaga daude aurreneko postuetan.

Errioxaren ondoren Gorbeia inguruak eta Arabako ibarrak datoz bigarren eta hirugarren. Laugarren eta bosgarren Debagoiena (Gipuzkoa) eta Durangaldea (Bizkaia) daude. Berriz ere nabarmenezkoa da eskualde hauetako balio erantsi osoaren gainera industri-adarraren pisua. Euskal AE guztira hartuta, zerbitzuen sektoreak du pisurik handiena.

Azken hamar urteetako biztanleko BPGren bilakaerari begiratuz gero, Bizkaiko Zierbena eta Gipuzkoako Aramak dituzte hazkunderik handienak, urteko batez besteko hazkunde metatuak %39,1 eta %32,8 direlarik; Euskal AEko batez bestekoa %7,2 da.

Olaberriak (%18,9) Gipuzkoan, Bernedok (%16,6) eta Berantevillak (%16,5) Araban, eta Mañariak (%16,3) eta Larrabetzuk (%15,2) Bizkaian hazkunde nabarmenak ere izan dituzte.

2. taula. Biztanleko BPG hazkunderik handiena (eurotan) duten udalerriak 1996-2005

LURRALDE-EREMUAK	Biztanleko BPGa		Urteko batez-besteko hazkunde metatua (%)
	1996	2005	
Euskal AE	14.573	27.153	7,2
Araba	17.592	32.236	7,0
Bizkaia	13.456	25.738	7,5
Gipuzkoa	15.195	27.250	6,7
1 Zierbena	9.766	190.428	39,1
2 Arama	6.067	77.944	32,8
3 Olaberria	58.030	276.451	18,9
4 Bernedo	15.432	61.708	16,6
5 Berantevilla	26.120	103.232	16,5
6 Mañaria	21.805	84.842	16,3
7 Larrabetzu	9.617	34.485	15,2
8 Villabuena de Álava/Eskuernaga	24.829	87.206	15,0
9 Muskiz	28.896	101.404	15,0
10 Derio	18.953	65.311	14,7

Iturria: Eustat

Emankortasunaren ikuspegitik, horren neurri gisa **pertsona okupatuko BPG** harturik, alegia, biztanleria aintzat hartu beharrean udalerri bakoitzeko pertsona okupatuak hartuz gero, Zierbena eta Muskiz ditugu aurreneko leketan, Bizkaikoak biak; hirugarren Arabako Zambrana dugu eta laugarren Gipuzkoako Olaberria.

3. taula. Pertsona okupatuko BPG handiena duten udalerriak (eurotan) 2005

LURRALDE-EREMUAK	Landuneko BPGa	INDIZEA
Euskal AE	59.345	100
Araba	62.189	105
Bizkaia	58.730	99
Gipuzkoa	58.906	99
1 Zierbena	398.680	672
2 Muskiz	240.971	406
3 Zambrana	162.642	274
4 Olaberria	153.358	258
5 Elciego	111.250	187
6 Mañaria	110.319	186
7 Asparrena	103.605	175
8 Navaridas	102.779	173
9 Altzo	99.199	167
10 Ziortza-Bolibar	98.245	166

Iturria: Eustat

Eskualdeka, berriz ere Arabako Errioxa agertzen zaigu Pertsona okupatuko BPG handiena duen eskualde gisa; ondoren Arabako Ibarak eta Goierri, Gipuzkoan. Bizkaian Durangaldea da okupatuko BPG handiena duen eskualdea.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

+Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp